| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2009/06/30<br>**Fecha**: 30/06/2009 | **Ordua**: 19:00 – 21:00<br>**Hora**: 19:00 – 21:00 | **Lekua**: Udaletxea<br>**Lugar**: Ayuntamiento |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes:**

***Udala/ Ayuntamiento:***

- Gontzal Sarrigoitia (Alkaltea / Alcalde)
- Lazaro Milicua (Idazkaria / Secretario)

***Gizartea/Sociedad:***

4 herritar / 4 ciudadanos/as

***Aholkularitza /Consultora:***

- Ainhoa Ugalde, Amaia Abanzabalegi (BITAKA)

| **1. Saludos y agradecimientos** | **1. Aurkezpena eta esker onak** |
|---|---|
| Se da la bienvenida y agradece a todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de las Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br><br>Coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar este segundo foro de participación ciudadana para debatir las propuestas y para que puedan ser sometidas a un contraste con las opiniones y la visión de la ciudadanía en general. Una vez terminado el proceso de participación, las aportaciones se tendrán en cuenta en el Plan de Acción. | Ongietorria eman zaie bertaratuei eta aldi berean eskerrak eman zaizkie euren parte-hartzeagaitik. Aldi berean euren laguntzaren garrantzia nabarmendu da Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren planaren ekintzen proposamenak aurkeztu diren foro honetan.<br><br>Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da bigarren foro hau antolatuz. Denen artean ekintzen proposamenen inguruan eztabaida burutzea da bigarren foro honen helburua.<br>Partaidetza prozesua bukatu ostean, jasotako ekarpen guztiak Ekintza Planerako kontuan hartuko dira. |
| **2. Presentación del borrador de Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado** | **2. Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Diagnosiaren aurkezpena** |
| Los técnicos de Bitaka realizan la presentación del borrador de Propuesta de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado mediante la ayuda de una presentación por ordenador.<br>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: las conclusiones principales extraídas del diagnóstico, las proyecciones de futuro en materia de movilidad, los objetivos que se han tenido en cuenta a la hora de definir el borrador de actuaciones y las propuestas de actuaciones concretas, en fase de borrador, | Bitakako teknikariek Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Ekintzen Proposamenak zeintzuk diren azaldu dute, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.<br><br>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: diagnosiaren ondorio nagusiak, etorkizunera begira mugikortasunaren inguruan dauden plangintzak, ekintzen proposamenen zirriborroa egituratzekoan kontutan izan diren helburuak eta Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planak izango dituen ekintzen proposamen zehatzak, zirriborro eran. |

| | |
|---|---|
| del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que las propuestas se recogen en un documento provisional, que se espera que sea completado con las aportaciones realizadas por la ciudadanía en los foros de participación ciudadana en los municipios del ámbito de estudio.<br>Dado el número de asistentes, se opta por realizar una presentación abierta y comentada por los/las mismos/as y posteriormente iniciar un debate. | <br>Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Ekintza proposamenen behin betiko bertsioa herritarren ekarpenekin osatua izango da. Horretarako azterketaren eremuko herri guztietan partaidetza foroak burutuko dira.<br>Bertaratutako jende kopurua kontuan izanda, aurkezpen irekia egitea proposatu da, bertaratuen ekarpenetara irekia, eta gerora eztabaida bat egin da aurkezpenaren inguruan. |
| **3. Debate sobre la presentación** | **3. Aurkezpenari buruzko eztabaida** |
| A continuación se exponen los temas tratados en el debate sobre la presentación de la Propuesta de Actuaciones:<br><br>▪ **Transporte público: Autobús y transporte a la demanda:**<br>- Si en un futuro está previsto el incremento de la oferta de transporte público, el carril bus propuesto en el PTP del Duranguesado no tiene sentido. En teoría, el incremento de la oferta de transporte público supondrá un incremento de la demanda del mismo. Todo esto supondrá que las carreteras que actualmente registran saturaciones tengan menos saturación en el futuro y por ello, no tiene sentido la implantación de un carril bus.<br><br>▪ **Carriles bici y carriles peatonales:**<br>- En relación al carril bici propuesto entre Lebario y Garai, se comenta que se ve mejor que se proponga un carril peatonal. Ya que los asistentes no ven posible que la ciudadanía de Garai utilice el carril propuesto para ir con la bicicleta a sus trabajos, pero sí ven más viable que la ciudadanía utilice el carril como eje peatonal para ir de un núcleo a otro de forma segura. De todos modos, se comenta que los ciclistas que frecuentan las carreteras de Garai son deportistas que prefieren la carretera a un carril ciclable para sus entrenamiemtos. Por ello, desde el foro se solicita que el carril ciclable entre Lebario y Garai se convierta en vía peatonal.<br>- En relación a este apartado, Gontzal y Lazaro comentan que desde el Ayuntamiento se están realizando gestiones con la DFB para que dicho tramo se convierta en un eje peatonal.<br>- A los asistentes les resulta excesivo el objetivo expuesto | Jarraian Ekintzen Proposamenen aurkezpenari buruzko eztabaidan azaleratutako gaiak eta ekarpenak azaltzen dira:<br><br>▪ **Garraio publikoa: Autobusa eta eskariaren araberako garraioa.**<br>- Etorkizunean garraio publikoaren eskaintzaren hazkundea ematen baldin bada, Durangalderako LZPan azaltzen den autobus erreiak ez du zentzurik izango. Teorikoki garraio publikoaren eskaintzaren hazkundeak eskariaren hazkunde bat suposatuko du. Horren arabera, gaur egun ditugun errepideetako saturazio-guneak beraz, ez lirateke hain saturatuak egongo, eta beraz, ez da beharrezkoa ikusten autobusarentzat berebiziko errei bat ezartzea.<br><br>▪ **Hiri-ardatzak eta bizikleta-ardatzak:**<br>Lebario eta Garai lotuko dituen bizikleta ardatza da jarraian hizpide. Bertaratutakoen ustetan, hobe da oinezkoentzako bidea jartzea bizikletentzako bidea jartzea baino. Garaiko herritarrek ez omen dute lanera joateko bizikleta-ardatzik erabiliko, baina beraien ustez herritarrek gune batetik bestera seguruago ibiltzeko oinezkoentzako azpiegitura bat erabiliko lukete. Bestalde, bertaratutakoen esanetan, Garaira doazen txirrindulariak entrenamenduetan jarduten duten pertsonak dira, eta nahiago izaten dute errepidean zehar ibiltzea bizikletentzako bide batetik ibiltzea baino. Hori dela eta, Lebario eta Garai elkartzeko oinezkoentzako ibilbide baten eskaera luzatu da foroan.<br>- Gontzal eta Lazarok gai honi buruzko aipamen bat luzatu dute. Antza, Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari era honetako azpiegitura bat ezartzeko eskaria luzatu omen dio.<br>- Mugikortasun Planak izango dituen adierazleei daokienez, bertaratutakoen ustez bizikletaren erabilpenari dagokion adierazlea gehiegizkoa da. Utopikoa omen da ekintzen |

de la utilización de la bicicleta. Les parece utópico que en un futuro el 15 % de los desplazamientos se realicen en bicicleta, tanto por el clima de Euskadi, como por la orografía. De todos modos, habría que implantar medidas para que todo el mundo utilizase la bicicleta en sus desplazamientos (carriles bici, aparcamientos...)

- En nuestro día a día, todos/as andamos corriendo y estresados en nuestros quehaceres y parece utópico que saquemos un ratito demás de nuestro tiempo para ir andando o en bicicleta. Tendríamos que cambiar de mentalidad.

- Se ve más posible el uso de la bicicleta en personas de menos edad.

- Se comenta que +Dendak ha propuesto el alquiler de bicis en Durango. Desde la Consultora se responde que es una buena idea, pero que convendría que se analizase más profundamente su gestión sobre todo en que en todas las zonas de Durango se repartiesen las bicis.

- **Aparcamiento intermodal:**

- En principio a los/las asistentes no les resulta mala idea la implantación de un aparcamiento intermodal en la zona propuesta (Lebario). Sin embargo, se comenta que en el futuro la DFB prevé construir un aparcamiento intermodal en la rotonda prevista en el pincho de Lebario.

- **Cambio de mentalidad y sensibilización:**

- Se comenta que la ejecución de este Plan requiere una cambio de mentalidad radical de todos/as hacia el trasvase modal.

- Actualmente, tenemos un problema donde nuestra dependencia al vehículo privado influye negativamente en el medio ambiente y tenemos que cambiar de mentalidad y de manera de actuar.

- **Información:**

- Es necesario que en todos los servicios ofrecidos por las Administraciones se informa efectivamente a la ciudadanía para que está pueda utilizar los servicios existentes y conozca sus derechos. En especial en temas referidos a la movilidad, es necesaria la información sobre los horarios y itinerarios del transporte público y sobre la localización de los aparcamientos intermodales.

proposamenean agertzen den bizikletaren erabilpenaren %15eko helburua. Beraien ustez Euskadiko klimak eta Durangaldean dugun orografiak ez dute lagunduko bizikleta horrenbeste erabiltzeko orduan. Dena den, beraien ustez, bizikletaz egiteko joan-etorrietarako ezinbestekoak diren baliabideak ezarri behar dira (bizikletentzako erreiak, aparkalekuak etab.)

- Egunerokotasunean denok ibiltzen omen gara presaka eta estresaturik, eta bertaratutakoen ustez utopikoa da oinez edo bizikletaz joan-etorriak egiteko denbora tarte bat hartzea. Mentalitatea guztiz aldatu beharko genuke horretarako.

- Bizikletaren erabilera haundiagoa izango da pertsona gazteen eta umeen artean pertsona helduetan baino.

- Durangon bizikletak alokatzeko ekimena jarri nahi omen du +Dendak-ek abian.Aholkularitzako teknikariek ideia ona dela esan dute, baina ondo aztertu behar den ekimena omen da. Bizikletak Durangoko gune desberdinetan ondo banatuak egon beharko lirateke, eta banaketa honen kudeaketa ondo aztertu behar da.

- **Aparkaleku intermodala:**

- Ekintzen proposamenetan Lebarion aparkaleku intermodal bat ezartzea proposatzen da. Bertaratutakoen ustez, ideia ona da. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak Lebarioko sarbidearen ondoan aparkaleku intermodal bat ezartzeko egitasmoa duela ere esan da.

- **Mentalitate aldaketa eta sentsibilizazioa:**

- Plan hau aurrera eramateko denon jokamolde edo mentalitate aldaketa bat beharrezkoa dela esan da, mugitzeko moduetan aldaketa bat eman dadin.

- Gaur egun ibilgailu pribatuarekiko menpekotasun handia dugu, eta horrek ingurumenari kalte egiten dio. Mentalitate aldaketa bat beharrezkoa da egunerokotasunean beste mugitzeko era batzuk erabiliak izan daitezen.

- **Informazioa:**

- Garraio publikoari buruz hitz egiten izan garela, herritarrak informazioa eskuragai izatea zein garrantzitsua den azaleratu da. Garrantzitsua da herritarrak administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazioa izatea, baita herritar legez zein eskubide dituen jakiteko. Mugikortasunari buruzko informazioari dagokionez, beharrezkoa da garraio publikoaren ordutegi eta ibilbideei buruzko informazioa eta baita aparkaleku intermodalak non dauden jakitea ere.

| | |
|---|---|
| ▪ **Implicación institucional:**<br>- Se comenta que la ejecución de muchas de las acciones descritas en el estudio no están en manos de la Mancomunidad y los Ayuntamientos de la Comarca y que son principalmente responsabilidad de la DFB y el Gobierno Vasco. La consultoría expone que el presente estudio pretende ser un instrumento técnico avalado por la participación ciudadana para poder reclamar las necesidades y acciones detectadas en la Comarca en las instituciones públicas pertinentes.<br>- Se solicita que las políticas tendrían que ser más uniformes y de acuerdo con visiones en pro de la sostenibilidad, ya que en ocasiones se ven contradicciones entre diferentes administraciones.<br>- La consultoría sugiere que para que todas estas acciones recogidas en el Plan de Movilidad Comarcal se ejecuten es preciso que los Ayuntamientos de la Comarca firmen un Pacto a favor de la movilidad sostenible con el objetivo de que todas sus políticas vayan dirigidas hacia una movilidad más sostenible no dependiente del vehículo privado. | ▪ **Erakundeen inplikazioa**<br>- Proposaturiko ekintza asko ez omen daude ez Durangaldeko Udalen ezta Amankomunazgoaren esku, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren esku baizik. Aholkularitzak egindako azterketa tresna tekniko bezala hartu beharra dagoela esan du, herritarrek iritziarekin aberastutako tresna tekniko bezala. Tresna hau herritarren beharrizanak eta proposaturiko ekimenak erakunde nagusien aurrean (Eusko Jaurlaritza eta BFA) defendatzeko baliagarria izan daiteke.<br>- Auzi honi dagokionez, politikak bateratuagaoak izan beharko liratekeela esan da, eta iraunkortasunaren aldeko ikuspegia izan behar dela. Administrazio ezberdinen artean kontrajarriak diren ekimenak bultzatzen direla ere esan da (adibidez ibilgailu pribatua erosteko diru-laguntzak ematea).<br>- Aholkularitzak zera gaineratzen du: Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planean izango diren ekintzak bideratzeko, eskualdeko Udalek Mugikortasun Iraunkorraren aldeko paktu bat sinatzea ongi legokeela. Era horretan, eskualdean bultzatutako politikak mugikortasun iraunkor bat lortzera zuzenduak egongo lirateke, ibilgailu pribatuarekinko menpekotasun hori gainditzeko mugikortasuna bilatuko litzateke. |
| **4. Agradecimientos y despedida** | **4. Agurra eta hurrengo pausuen azalpena** |
| Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que se levantará el acta de la reunión mantenida, posteriormente se enviará al Ayuntamiento por último se pondrá a disposición de toda la ciudadanía.<br><br>Así mismo, se informa a las personas asistentes que al finalizar todo el proceso participativo en los municipios que son objeto del estudio, se hará llegar un documento con todas las conclusiones a todas las personas que han participado.<br><br>Por último, se agradece a todas las personas su presencia y participación en este Foro. | Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, burututako batzarraren akta egingo dela azaldu da. Udalera onartzeko bidali eta onartuta denean herritarrei zabaldua izango da akta hau.<br><br>Aldi berean, bertaratuek jakinarazten zaie aztertu diren herri guztietan zehar egiten ari den parte-hartze prozesua bukatzen denean, foro hauetan jasotako ondorio nagusiak batuko dituen dokumentu bat heleraziko dela parte-hartzaile guztiei.<br><br>Azkenik, bertaratuei foro honetan izan duten parte-hartzea eskertu zaie. |